

Karkara

karkara.eus

Orriko eta Aiako aldizkaria • 2019ko irailaren 27a • 409. zenbakia

Posterra
opari!



Memorian iltzatuko den denboraldia

Denboraldi bikaina egin dute Orrio Arraunketa Elkarteko hiru traineruek, hiru liga eta Kontxa irabazita.

Ñigo Lasa

Osteopatiaren eskutik zentro berria **Orion**



IREKIERA BERRIA LAISTER!

Pilates

Hipopresiboak
Luzaketa global aktiboa
Erditu ondorengo ariketak

...

Informa zaitez gure zentroan

Estropalari 4, behea · ORIO
943-57 14 72

Villar Autobusak

Bidai nazionalak eta nazioartekoak
83 eserleku



Autocares Villar

Orio (Gipuzkoa)

Tel: 609402537

Email: autocaresvillar@yahoo.es

www.autocaresvillar.com

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzan erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*

Ander Zinkumegi

667 740 279

Usurbil Autoak
Zumartegi Industrialdea, Aitzearra kalea, 24
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
usurbilautoak@gmail.com
Tel: 943 36 10 79

SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA

677 109 902 usurbilautoak@gmail.com

PANDA 4X4	TALENTO	QUBO 2
500X	SPORTAGE	SORENTO
STONIC	NAIRO HYBRID	

Sagasti LEIHOAK
Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitazteko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua
www.sagastileihok.com

Joseba AROZTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- AROZTEGIA OROKORREAN

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea
KUrolako Komunikazio
Taldea Koop. Elk.Soreasu
z/g
20730 Azpeitia
Erredaktore burua
Ainara Lasa

Erredakzio taldea
Onintza Aiestaran
Dorleta Agiriano
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Miriam Garcia
Jon Garate
Aiora Larrañaga
Onintza Lete
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea
Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak
Eli Huegun
Alazne Arruti
Iñaki Iturain
Miren Etxeberria
Irati Agirreazaldeg

Diseinua
Saioa Perona

Banatzaileak
Endika Ruiz (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Antza S.L (Lasarte-Oria)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Ibon Arruti 'Aldape'-ri jarri dio puntua Asier Gozategik: *Udaletxetik balkoira irten ta bandera astintzean*. Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

IBON ARRUTI 'ALDAPE' (DOINUA: GURE AURREKO GURASO ZAHARRAK)

1

Udaletxeko balkoira irten eta bandera astintzean,

oso gutxitan sentitzen dena sentitzen da barrenean. Herri guztia horiz jantzita pozez txaloka ikustean, harrotasuna ta zorionak denoi biltzen gaituenean, ze zoriontsu egiten garen momentu txiki batean.

2

Udaletxeko leiho aurrean oraindik atera gabe, lagunak nola astintzen duen begira ixilik gaude. Etxekoekin gogoratzen zara beti zurekin baitaude. Kanpotik baina gu baino gehiago sufritzen ez ote dute, ustet askotan gure lekuan heurek egon beharko lukete.

3

Banderak eta banderak daude nor beraren gogorako. Aurrenekoa ezta ahaztutzen berezi izan zelako. Despreziorik ez dut egin nahi denak direlako baleko. Baina guk Kontxa lortu nahi hortan entrenatzen dugulako, trapu txikiek Kontxa bezala ez gaituzte asetuko.



A. Lizarralde, I. Arruti, X. Arregi eta L. Salvagno. Kontxako Sailkapen Estropadan. IUNANUE

Hurrengo bertsolaria:

Gorka Etxeberria

Puntua:

Igeldoko harria
horren baldarra al da?

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Eskerrik asko, Marisol.

Kaixo, Marisol.

Eskerrak ematen jarraitzen duzu behin eta berriz. Ni oriotarra naiz eta *bezerorik txikiena*. Baserritarra, eta anaia eta koinatarekin nahiko haragi hornitutakoa naiz.

Urte luzez izan naiz zure harategiko bezeroa. Bertara joaten nintzenean, beti bezerorik handiena izan banintz bezalako tratua eman didazue. Egunonak, irrifarrea, elkarrizketak eta agur beroa inoiz ez zaizkit falta izan zuen harategian.

Noiz edo noiz orduz kanpoko konpromisoren bat nuenean ere beti prest egon zarete bezero txikiari behar zuen hura emateko.

Patxi, bihotz ona, jolaserako prest beti! Orain zorionaz gozaten egongo zarelaokan ago!

Zuk, Marisol, nahiz eta mostradorea goraino beteta izan

Gutunerako oharrak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erredakziora eskura ekarri - Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

eman behar dizkizuegula eskerrak zuei, guk ikasi genuen hasteko patata herein egin behar zela gero jasotzeko.

Mostradorearen atzean beti izan duzue umiltasuna bezeroekiko negozioan, prestutasuna eta horiek denak izan dira zuen negozioa deskribatzen duten hitzak. 40 urtez dena aurrera eraman ahal izan duzue hitz horiek guztiengatik.

Zuri Marisol, bihotzez, jubilaziorik onena opa dizut eta besarkada handi bat.

Mila esker, bizi txikiaren partez.

• Bezero Txiki

beti izan duzu aurpegi ona, eta bereiztasunik egin gabe beti.

Nik behintzat uste dut, oriotarrok

Akatsa

Abuztuko aldizkarian akats bat egin genuen *Herrian Galdezka* atalean. Bi elkarrizketatuen argazkiak alderantziz ipini genituen. Horregatik, barkamena eskatu

Tel. 943 83 31 03
ITZIAR KIROLAK

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotorosanaarruti@gmail.com
teli: 943 83 58 45

egin zaituz laguntzailerak

Karkara
karkara

FISIOTERAPIA Garikoitz Aristegi eta Natalia Wierzesen
NUTRIZIONISTA Garbiñe Aizpuru

sinergia investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

RUNNING IKASTAROA
ATE IREKIAK
Urriak 3, 18:30

BXPport

ELEKTRIZITEA
Ander Exposito
943 831 774
600 856 728
anderexpoelktrizitatea@gmail.com

K-U-K-U-A-B-B-I
ELEKTRIZITEA

Tel.943 100 181
Mobila 640 281 308
Zigordia, 52 - Behea C
20800 Zarautz
kukuarri@kukuarri.com

Izaskun Estankoa
Tabakoa-Prentsa-Eskola materiala
Opariak

Astelehenetik ostirategi
8:00-13:00 - 17:00-20:00
Lagunbatetan eta igandetan
8:00 - 13:30

Eusko Gudari, 23-20810 Orrio - Tel.: 943 831 212

MENDIZABAL
AROTZEGIA
Neurriko armairuak eta egurlanak

943 831 175 Altxerri bidea
645 708 491 Beti-Alai etxea
mendi@arotzgi.net 20810 Aia-Orrio

nahi diegu Santos Uranga eta Santi Ibirriagari.

• **KARKARA**

Zatoz dantzara!

Kaixo guztiok:

Aurtengo ikasturtean ere Talai-Mendi helduen dantza eskolako kideok, euskal dantzen ikastaroa eskainiko dugu herritar guztientzat.

Kosta Tailerrearantz izaten da entsegua, asteazkenero. 21:00etatik aurrera, Fandangoa, Arin-arina, Mutxikoak, Larrain dantza eta beste hainbat dantza ikasteko aukera izango duzue gurekin parte hartzera animatzen zareten guztiok.

Ikastaroa 18 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago, eta euskal dantzak atsegin dituzten oriotarrak ikastarora gonbidatu nahi ditugu.

Urriaren 2an, asteazkenarekin

hasiko dugu aurtengo ikasturtea, gaueko 21:00etan, Kosta Tailerrearantz. Zatoz!

• **Talai Mendi helduen dantza eskola.**

Ateak zabalik!

Ikasturte berria hastearekin batera, Txurruuskiko kideok ere martxan jarri ditugu Ludoteka eta Ametsa Gaztelekua.

Irailaren 10ean zabaldu genituen Ludotekako ateak eta azken bi asteetan ate irekien saioak egin ditugu. Urte osoan izango dute gurasoek haurrak Ludotekan inskribatzeko aukera, baina plaza mugatuak izaten dira.

Ikasturtea hiru hiruhilekotan banatzen dugu Ludotekan, eta horren arabera izaten dira ordainketak ere. Ikasturte osoa hautatzen dutenek 50 euro ordaindu beharko dituzte, urtariletik aurrera

izena ematen dutenek, 35 euro eta apiriletik aurrera bertaratzeko direnek, 20 euro. Prezio horren barruan, haurrek aukeratutako bi egunetan Ludotekara joateko aukera izango dute.

Horrez gain, astelehenak egun libreak izaten dira, eta Ludotekako haur guztiek bertaratzeko aukera izango dute. Astelehenetik ostiralera, 16:45etik 19:30era egongo da zabalik Ludoteka eta asteburuetan itxi egingo da. Bestalde, Ametsa Gaztelekua librea da, hau da, bertaratu nahi duten haurrek ez dute izenik eman behar. Ikasturte honetan ere ohiko ordutegia izango du gaztetxoek lokalak: astelehen eta ostegunetan 16:45etik 20:00ra egongo da zabalik, ostiraletan, 16:45etik 20:30era, larunbatetan 16:30etik 20:30era eta igandeetan 16:30etik 20:30era.

• **Gaztelekuko eta ludotekako kideak**

JAIOTAKOAK

- Luka Aldalur Atorrasagasti, Aian, uztailearen 15ean.
- Itxaso Arrizabalaga Ibarra, Orion, abuztuaren 30ean.
- Ane Rueda Iglesias, Orion, irailaren 7an.
- Thiago Danger Larrañaga, Orion, irailaren 11n.

HILDAKOAK

- Bittor Zinkunegi Aiestaran, Orion, abuztuaren 31n. 60 urte
- Maria Goikoetxea Maritxalar, Orion, irailaren 3an. 88 urte.
- Zeledonio Aizpurua Aranguren, Orion, irailaren 9an. 87 urte.
- Saturnino Padilla Hermosilla, Orion, irailaren 16an. 93 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4

Tel. 943 894 024

Fax. 943 130 144

20809 AIA - ORIO





Hiru ligak irabazita, udala banderaz beteta. KARKARA



Iazko Gazte Festetako danborrada. KARKARA.



Iazko Gazte Festetako Paella Lehiaketa. KARKARA

Ezin jai giroaz ahaztu

“Askok urtarrilerako egiten dituzte promesak. Orion, ordea, *Kontxa pasatakoan hasiko naiz* esaten dugu.”

A buztua uste baino azkarrago agurtu dugu, urtero bezala, konturatzeko hasi eta buka. Baina, azken urteetan baino arraun gose gutxiagoz agurtu dugula esan dezakegu. Uda honek luzaroan gogoratuko dugun zerbait izan badu, iganderoko zita izan baita: arraunlariei errezibimendua.

Kosta zaigu, hala ere, irailera salto egitea; hilaren 1a iristearekin batera eguraldi txarrak egin du bere lekua herrian. Eta orain, hilabete osoan ezin asmatu udan edo neguan gauden. Eskerrak, tartean, bi Kontxako estropadak izan ditugun, martxa hartzen laguntzeko. Izan ere, askok urtarrilerako egiten dituzte promesak, beste askok irailerako, ikasturte berriarekin batera. Orion, ordea, *Kontxa pasatakoan hasiko naiz* esaten dugu.

Bada, emakumezkoen traineruak bere lehenengo Kontxako Bandera irabazita, bazen herrian ospakizunerako gogoia, astelehena jai eskatua zuten herritarrek ez zuten etxera joateko presarik, ezta goizean goiz lanerako jaiki behar zutenek ere.

Ajea pasata (halako batean), sasoi betean gaude berriz ere jai giroan sartu eta Gazte Festez gozatzeko. Etxeluzeko piratek programa polita osatu dute asteburu honetarako! Pirataz jantzi eta danbor eta barrika hotsek hartuko dituzte kaleak gaur gauean. Bihar, sukaldariz jantzi eta Paella Txapelketa Beganoan parte hartzeko prest izango dira gazteak. Eta ia atsedenek gabe jarraituko dute igandera arte, festan. Goizean, 7:00ak aldean turutek esnatzen bazaituzte, ez harritu.

Plazako lanek eragozpenik sortu al dute?



“Sarrera-irteera nahiko traketsa geratzen da”.

Lanak hasi direnetik, herriko sarrera-irteera nahiko traketsa geratzen dela uste dut. Egiten ari direna onerako izatea espero dut, baina iritzi kontrajarriak ditut. Izan ere, jakin badakit, asteburuetan plaza oinezkoentzat ixten dutenean, giro ederra izaten dela inguru honetan, baina ez dakit eguneroko martxari nola eragingo dion. Guri, esaterako, goizean goiz jende asko etortzen zaigu; autoa plazan aparkatzen dute gehienek eta gosaltzera etortzen dira. Plaza oinezkoentzat egokitzen dutenean, ordea, ez dakit beherakadarik antzemango ote dugun.

Yomara Moncada



“Herriaren bizi kalitatea hobetuko duela uste dut”

Herriko sarreran abiatu dituzte lanak azken hilabete honetan, eta oraingoz ez dut inolako eragozpenik antzeman nire eguneroko martxan. Gainera, uste dut herriarentzat mesedegarria izango dela plaza ingurua oinezkoentzat egokitzea, herritarrok kaletik lasai ibiltzeko aukera izango baitugu horrela, ibilgailuen joan-etorriaz kezkatu gabe, orain arte urte askotan egin ez dugun bezala. Egia da, agian, denboraldi batez eragozpenak izango direla, baina aldaketak herritarren bizi kalitatea hobetuko duela uste dut etorkizunari begira.

Jose Luis Agirre



“Bukatzean zoragarria geratuko da”

Lanen lehen zatia gure kafetegiaren aurrean tokatu zaigu, eta zirkulazioan egindako aldaketa nabarmendu dugu, aparkaleku gutxiago baitaude orain inguruan. Hala ere, terrazan ez dugu beherakadarik antzeman, eta momentuz herritarrek ez zaizkigu kexatu. Nik uste dut, urte honetan lanak direla-eta inguruko komertzioek eta bizilagunek hainbat eragozpen izango ditugula, baina bukatzen dutenean zoragarria geratuko da. Beraz, denboraldi batean pazientzia izan beharko dugu, denontzat onuragarria izango baita aldaketa.

Nerea Etxeberria

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

BODEGAS
Gailur
01307 BAIÑOS de EBRO
Tel./Fax 945 60 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI

Geltariako Txakolina
Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net
www.txakolizudugarai.com

Igandea



Eli Huegun

Astearteek hor diraute, euren anonimotasunean, oraindik aste osoaren karga bizkarrean hartu behar dutelarik.

Banoa autoan, irailak ematen dizkigun igande triste horietako batean, irratia *Everybody hurts* abesten hasten denean. Hara, hau ez al da historiako abestirik tristeena? Mugikorrari galdetu eta beno, tristeena ezetz baina depresiboena baietz. Inkesta bat egin zutela Estatu Batuetako ez dakit zer unibertsitatetan. Gauza bat garbi daukat: nire botoa ez litzatekeela abesti honentzat izango.

Bonbila piztu zait bat-batean. Urteko hirugarren astelehena ez al da urteko egunik tristeena? Astelehen urdina deitzen dioten hori. Banoa berriz ere mugikorrari galdera egitera. Ba tira, oraingoan oker samar ibili naiz, urtarrileko hirugarren astelehena omen.

Erantzunak ez nau asko konbentzitu, niretzat urtea irailarekin bat hasten baita. Eskolara joateari aspaldi utzi nion, baina dinamika hori ez dut oraindik aldatu. Hortaz, niretzat astelehen urdinaren kontzeptu hori hurrengo egunean zatekeen aplikagarri. Kontxo, ba hori ere ez. Biharkoa ez da urteko hirugarren astelehena, laugarrena baizik. Oraingoan bai, kale egin dut eta ez dago besterik.

Astelehenak gorrotatzearen hori ez dakit zenbateraino den egi eta zenbateraino moda. Norberak

izango ditu bere arrazoiak, baina betidanik, astearteak okerrago iruditu izan zaizkit. Astelehenak iraintzeko programatu gaituzte, baina astearteek hor diraute, euren anonimotasunean, oraindik aste osoaren karga bizkarrean hartu behar dutelarik. Nola prestatu existitzen dela sumatzen ez duzun zerbaiti aurre egiteko?

Igandeen fama txar hori, beraz, astelehenei dagokie berez.

Hilabete honetako igandeei begira jarrita, ezin da esan txarrak izan direnik gurean, arraunaren itzalak alaitu baikaitu. Guztiak esaten hasita, uda osoan zehar izan da hala, baina beno. Kontxako banderak Kontxako igande ere badira eta zirrara hori beti da ona. Igandeari eman diozun tratua araberako ajea uzten du gero astelehenak, baina hori beste kontu bat da. Gustuko ez duzun lanera joateak sortzen duen ajea bezala, kapitalismo bortitzaren tranpak jan zaituenaren kontzientzia hartzearen ezinegona, baina hori ere beste kontu bat da.

Pentsatzen jarrita, gaurkoa ez da igande-igandea. Bihar ez dut lanera joan behar, etzi ere ez. Belauna izorratzeak abantailaren bat izan behar zuen, antza.

azku
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7

20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86

carroceriasazkue@hotmail.com



Jon Salsamendi irailaren 15eko errezebimenduan.

Herritik eta herriarentzat

**Oroimenaren
kutxa**

Orioko historian zer festa izan da herrira jende gehien ekarri duena? Lagunarteko afariaren osteko solasaldian atera zen galdera, apustu giroan. Arraunzaleak segituan Oxford-Orio estropada-eguna ekarri zuen gogora. Aitortu zitzaion 1968ko abuztuaren 25ean mundu bat etorri zela Oriora. Orduko irudiek jendetza izugarria erakusten dute, festa-giro zoragarriaren neurrikoa.

Euskaltzaleak, *Erriatxikota!* esanez, Orioko ikastolaren 2014ko Kilometroak festa aipatu zuen. *Urriaren 5 hartan ere uholde bat jende etorri zen Oriora. Herriko ehunka boluntariok lan handia egin zuten ikastolen mugimendua bultzatzeko.*

Arrantzalea 2001eko Balearen Egunaz gogoratu zen, 1901ean balea harrapatu zuten Orioko arrantzaleen omenez antolatua. Herritarrek, arrantzale jantzian balearen bertsoak kantatuz, herri-antzerki polita eskaini zieten kanpotik etorritako bisitari pila haiei.

Halako batean, buru ona duen batek *OriOn* festa gogorarazi zuen. Inor ez zen akordatzen. *Bai, Udalak antolatu zuen 2008an, barra muturreko aireportua EusCalifornia bihurtu nahi izan zuten, hormigoizko festa erraldoia eginez.* Hark hori esan orduko, zehaztu zuen beste batek, mobilean begiratuta: *Bai, abuztuko asteburu batean ostiraletik igandera izatekoa zen; aurreneko egunean, sartzea debalde. DV-k 'la gran ciudad de ocio' izendatu zuen; han skateboard, freestyle eta wakeboard ziren izatekoak, dena giro chill out-ean; eta Coca Colaren karparen ondoko Euskaltelenetik 'pixka bat es mucho' ren doinua barreiatzen zen. 'Vocación de futuro' omen zuen jaiak. Jendea eramateko, Txu-txu trena eta txalupak jarrita ere, oso jende gutxi joan zen, eta hiru egunetan sekulako jendetza ekartzekoa zen jai bertan behera utzi zuten lehen egunean.*

Iaz ere gertatu zen antzeko zerbait Orioko hondartzan, esan zuen ordura arte isilik egondakoak. 'LOS 40 Summer Live (los 40 principales)' aipatu zuen, sega-potoari begira: Bai, iazko abuztuaren 10ean izan zen jaialdia, eta jende asko etorri zen Oriora. Gaueko hamarretan Duo Reykok 'Spinning over you' jo orduko, euri-jasa ikaragarria bota zuen, azken urteotako handiena; festa bertan behera geratu zen, eta gero, Orioko historia guztiko zirkulazio kaos handiena gertatu zen, izugarria.

Historiazaleak egin zituen kontuak: *Baleak, Oxford-Oriok eta Kilometroek eguraldi bikaina izan zuten. 'Ciudad de ocio' k, berriz, bero kiskalgarria; eta '40 principales' ek, sekulako zaparrada. Seguru asko, eguraldiak keinu historiko bat egin digu, nondik jo erakutsiz, jai-ereduaz gogoetatxo egin dezagun. Artzek esaten zuen nora goazen jakiteko nondik gatozen jakin behar dugula.*

Orduan, kuadrillako txikiena ausartu zen: *Dena ez da jende asko ekartzea. Aurtengo San Pedro bigarreneko 'Arrantzale Eguna' ren antolatzaileek hauxe jarri zuten KARKARA n, herritarrei eskerrak emateko: Aurtengoak kutsu berezia izan du. Herri arrantzalea izanda, gure sustraietan oinarrituz, gogora ekarri ditugu arrantzale eta saregileak, belaunaldien arteko transmisioa bultzatuz. Horrela, gure arteko harremanak sendotuz, herria egiten dugu.*

Ba, herriak herriarentzat antolatutako jai eredugarria irailaren 15ean arraunlariekin gozatu genuen ongi-etorri festa izan zen, aliron hunkigarria: Ave Maria baporean lehorreratu, Salsamendiren hitz egokiak, Aldape, Lizargate eta Camposen bertso dotoreak, Eneko eta Marijoren aureskua, herria Benitoren 'Mirotzak' kantatzen, arraunlarien bandera astintzea, herriko musika-taldearen emanaldia...; bertan izan ziren askok bizitza osoan gogoratuko dutena.

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra



Seguros Bilbao

Telf: 943 111 600
688 714 869

Endaia Enparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

Santi Barranco
Orioko ordezkaria

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47


PERTSIANAK

A K O M A Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajereros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA




Tf: 943 130 438




www.fontaneria-fontana.com

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoek instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

fontana
iturgintza

Plaza Endaia N°1, 20810 - Orio
fontana-ju@hotmail.es
943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA • GASA • BEROGAILUAK

zerbitzu teknikoak
24 ordu



urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20800 | Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

Desatascos



688 886 536

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascoslaster.com

24 ORDU



Hodi-libraketa
Garbiketak presio handiko urarekin
Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa
Hodien, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin
Uholde urak ateratzea
Ezkutuko kutxatilen detekzioa

Sagar erreka 21-A • 20590 Soraluze
Abaromendi bajo 3 • 20810 Orio
Tel.: 943 751 431



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Burugabetasun energetikoa



Alazne Arruti Bengoetxea

Inoiz pentsatu al duzu nondik datorren Netflixeko edukiak irensteko ezinbestekoa duzun routerra esna mantentzen duen argi-indarra?

Eguno gizarte kapitalistaren zutabeetako bat da energia. Engranaje erraldoia osatzen duen beste hortzetako bat. Eta gu, gizakiok, gurpilak biratzeko behar duen ardatza. Akaso horregatik hitz egin ohi dugu, bizitzak erdigunean jartzeak duen garrantziaz. Kontziente izan gaitezen, gure eguneroko hautuek geldiezina dirudien hori eten dezaketela. Pertsonala politikoa baita.

Inoiz pentsatu al duzu nondik datorren Netflixeko edukiak irensteko ezinbestekoa duzun routerra esna mantentzen duen argi-indarra? Akaso ulertzen al duzu hilero bidaltzen dizuten faktura?

Orain dela gutxi arte, energiaren komertzializazioa gutxi batzuen eskutan zegoen, eta ikatza bukatu arteko bakerik ez zutela zirudien. Baina gauzak aldatzen ari dira, Europako politikak lepoa estutu ahala trabak desagertzen doaz eta mundu hau aldatu nahi duenik bada oraindik. Horren adibide dira, Som Energia (KAT) eta Goiener (EH) gisako energia kooperatibak, edota I-Ener (EH) bezalako mugimenduak. Energia herritarongana hurbiltzen dihardute, jasangarritasuna ardatz. Kontsumitzaileei, jatorri berriztagarriko elektrizitatea eskaintzen diete, irabazitakoa, sorkuntza jasangarriko proiektuetara bideratuaz. Energia gure egin dezagun.

Eta zuk, energia berdea kontsumitzen duzu? Uxatu nagiak eta hasi erabakitzen.



Onintza Lete Arrieta

Ori(x)o

Asteburuan kanpinera joatekoak gara Azkoiti-Azpeiti aldeko sei familia. Jatorrak gara, berezi samarrak ere bai: batek kale egin du perretxiko denboraldia kilikagarriagoa zaiolako; beste bat erditzeaz dago, eta ospitalerako kit eta guzti joango da furgonetan; beste batzuek, berriz, pentsio ziztrina aukeratu dute, lagunekin bungalowa ez partekatzearen.

Garagardo eta garagardo artean, denetarikoa gaiez mintzatuko gara Errioxako gau hotzetan. Nik aitortuko diet ulertzen hasia naizela *Orixon* dagoen arraunzaletasuna. Talde garrasiaren ondoren, ea ondo nagoen hasiko zaizkit, ea hain azkar alienatu naizen. Saiatuko naiz azaltzen aurreko asteetan bihotz-sabeletan sentitu dudana. Nola ez nintzen gai izan azken errezipimendura joateko, barrua emozioz bete-betea neukalako. Nola astebete lehenago Kontxan, arranplan, mutilek irabazi ez izanak sekulako pena eman zidan; nola, era berean, poztu nintzen elastiko berdedunengatik, kankailu hura ikusi nuenean adineko gurasoei besarkatuta jendetzaren erdian, hirurak negarrez.

Nola errezipimenduan neskek uste ez nuen indarra eman zidaten, uste ez bezala harro sentiarazi ninduten Oriogatik.

Ez ditut konbentzitu. Baina nire barruan aldatu da zerbait, eta Gaztañazpiri ere, beste era batera entzuten diot orain.



2009.urtea. 2.Gazte Festen aurkezpena. KARKARA

10 urte argiztatuz

2008an ospatu ziren lehenengoz Gazte Festak. Urte onak eta zailak tarteko, **hamargarren aldiz jai giroan murgilduko dira herriko gazteak** 10 urte argiztatuz lelopean, gaurtik aurrera.

TESTUA: INTZA UNANUE ARRUABARRENA



“Aurpegi berri gutxi gehitu dira azken urteotan taldera.”

Uztailaren 2an hamar urte beteko dira herriko hainbat gaztek Etxeluze eraikina okupatu eta gaztetxe bihurtu zutenetik. Proiektu ororen atzean beti daude pertsonak, eta Etxeluzeren atzean, ere, bada eraikina aurrera ateratzeko gogoz, urteak lanean daramatzan herritar gazte talde bat.

2010. urtean, hutsik zegoen Etxeluze eraikina okupatu zuten OKK Gazte Asanbladak, kultur taldeek eta Orioko herritarrek. Orduz geroztik, herritar talde ezberdinek bultzatutako bilkura eta ekitaldiak egin dituzte. Etxeluzeri erabilpena ematen zioten taldeen presioaren ondorioz, 2012ko abenduaren 26an, Orioko Udalak eraikina erosteko erabakia hartu zuen.

Nahiz eta Etxeluze Proiektuko kideek hainbat obra eta egokitzapen egin, eraikinaren egoera oso prekarioa zen, eta udal gobernuak martxan jarri zuen obra, eraikina baldintza egokietan uzteko. Horrek bultzatuta, 2012ko ekainean Etxeluze proiektuko kide ziren talde eta norbanako ezberdinek, Berkolike Kultur Elkarteak sortu zuten, proiektua administratiboki Erregistroan erroldatuta egoteko.

Bide luzea

Udalak eraikinean egindako lanek markatu zuten hainbat urteetan gaztetxeko asanbladak izandako eboluzioa eta erritmoa. Bi fase izan zituzten lanek: 2015 amaieran hasi zen lehena, teilatua konponketarekin, eta urtebete ingurura, bigarrena. Paretak, argindarra eta beste hainbat egokitzapen egin ziren fase horretan.

Etxeluzeren konponketak, indartu egin zuen gazte asanblada. Gazte Festak berreskuratzean antolakuntzan aritu ziren gazte asko asanbladan parte hartzera animatu ziren, eta horrek eragin handia izan zuen Etxeluzen, bertako kideen arabera.

Lorez beteriko bidea badirudi ere, hamar urteotan, sarritan, ez da hain erraza izan Etxeluzeko kideentzat proiektua aurrera ateratzea. Gazte asanblada indartu egin zen urte hartan, bai, baina orduz geroztik bere horretan mantendu dela aitortu dute kideek. *Aurpegi berri gutxi gehitu dira azken urteotan taldera.*

Hori da asanbladaren erronketako bat datozen hilabeteetara begira: jende berria taldera gehitu eta elkarrekin ekintza berriak antolatzea. Bilerak astero izaten dira, astearteetan, 19:30ean, Etxeluzen.


Indarrean berriz

Gazte Festek ere bizi izan dituzte beren urte onak, eta baita ilunagoak ere. Azken bi urteetan, esaterako, egun bateko festa soilik izan da herriko gazteen jaia, hein handi batean antolaketarako boluntario faltak eraginda.

Horrela, aurrean, Gazte Festak ez giteko erabakia hartu



2008.urtea. 1. Gazte Festak. KARKARA



10. Gazte Festetako logoa.

zen. Azkenean, ordea, gazte talde bat elkartu eta bilerak antolatzen hasi ziren. Gazte Festetako batzordea gustura dago aurten lortutakoarekin: *Boluntario ugari bildu da aurten, adin eta kuadrilla ezberdinetakoak, eta lanerako gogo askorekin, gainera.*

Festen jatorriaz gogoratu dira batzordekideak aurten: *Gazte Festak, gaztetxea okupatzeko gazte mugimendu gisa sortu ziren hasiera batean, eta herriko belaunaldi desberdinak biltzeko izan zuten arrakasta ikusita, urtero antolatu izan dira festak.* Urte luzez, ordea, antolaketa lan guztia gutxi batzuen esku geratu izan da. Aurten, jendearen lanerako gogoak ikusita, egitaraua hiru egunetara luzatu da.

Irailaren 27tik, gaurtik, 29ra, igandera izango dira aurten, 10. Gazte Festak. Eta urtero bezala, jaiari parte hartzeri animatu dituzte oriotarrak. Ohiturei jarraituz, Piraten Danborrada egingo dute aurten ere, gaur gauean 21:00ean. Jarraian, Rukula taldeak kontzertua eskainiko du, moilan, lehen txosnak jartzen ziren eremuan (Aterpe parean).

Bihar, Paella Lehiaketa antolatu dute eguerdi parterako. Antolatzaileek zehaztu dute kontsumo ekologikoa eta beganoa bultzatu nahi dutela, horregatik, lehiaketan beganoak diren paellak soilik puntuatuko dituzte. Jarraian, Hemenbaen Orioko Batukada talde berriak girotuko du herria kalez kale, eta tartean jolasak ere izango dira. Gauean, Unidad Alavesa taldeak kontzertua

“Gazte Festak gaztetxea okupatzeko gazte mugimendu gisa sortu ziren hasiera batean”.

“Xaltxerak taldearekin landu eta zehaztu dugun protokoloa martxan jarriko dugu.”



2008. urtea. 1. Gazte Festetako goizaldeko diana. KARKARA

eskainiko du Etxeluzen. Eta Manuela ahizpek emango diote jarraipena festari.

Azken urteotan lehenengo aldiz, festa iganderaino luzatuko da. Goizaldean diana zaratatsua ibiliko da herrian barrena, eta arratsalde partean, asteburuan jaian parte hartu dutenek bidalitako argazkien emanaldia egingo da, Etxeluzen.

Festen ildotik konpromisoak

Azken hilabeteetan hainbat bilera egin dituzte gaztetxean, eta festa ereduaren inguruan eztabaidatu eta hausnartu dute. *Ezer antolatzen hasi aurretik, nolako festak nahi ditugun zehaztu dugu, eta hainbat lan lerro jorrazeko konpromisoa hartu dugu, azaldu dute.* Adostu dituzten konpromisoak dira: Gazte Festetan euskararen presentzia bermatzea, hondakinak gaika biltzea eta ahalik eta plastiko gutxien kontsumitzea, festen barruan ahalik eta kontsumo arduratsuena izatea bertako produktuak eta ekologikoak erabiliz, ikuspegi feminista duten jaiak izatea eta protokolo bat zehaztea.

Antolatzaileek gogorarazi dute jaiak eta kaleak guztionak direla eta aurtengo Gazte Festetan ere, ez dela onartuko eraso sexista, lesbobofo, gayfobo, transfobo ez arrazistarik. Horrela, edozein erasoren aurrean, *Xaltxerak taldearekin landu eta zehaztu dugun protokoloa martxan jarriko dugu.*

GAZTE FESTAK

Irailak 27, ostirala

21:30 Piraten Danborrada, Etxeluze Gaztetxetik abiatuta.
23:00 Rukula taldearen kontzertua Sorgin Plazan.

Irailak 28, larunbata

12:00 Paella Lehiaketaren hasiera eta kamiseta banaketa (antolakuntzak banatuko ditu arroza, tipula, baratxuria, olio eta gatza).
14:00 Paella beganoak aurkeztu. Jarraian, presoen aldeko argazkiak.
Jarraian, Hemenbaen batukada eta, tartean, jolasak.
21:00 Atsedena plazan, musikaz girotuta.
23:00 Unidad Alavesa taldearen kontzertua Etxeluzen.
Jarraian, Manuela ahizpak eta goizaldean diana.

Irailak 29, igandea

18:00 Argazki emanaldia. Bidali asteburuko argazkiak 650 31 78 95 zenbakira.

libe
dietetika
elikadura aholkularitza



eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com



ORIA
hortz klinika

Orria Hartz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor daitezkeen arazoel.

Arrantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45



www.podologia-oinarri.com

943 575 361
Arrantzale 63 · 20810 · Orio

ninarri
PODOLOGIA ZENTROA

Oreka
fisioterapia

943 13 35 37

Eusko Gudari, 54

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

Ille apaindegia

MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

Katu Horia
albai-aritza klinika



ESTROPALARI, 10
20810 ORIO

Larrialdiaik
668 89 11 29

www.katuhoria.com



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

INES ASEÑO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

TEL - 943 572 083
FAX - 943 571 190
i.asenjo@hotmail.es



EGARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

info@egarmendia.com

Tf:943 834 466-Fax: 943 132 941
Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio

ttipi



ttapa

943259695

ttipittapa.oihane@gmail.com
Eusko Gudarien,15 - 20810 Orio

Orioko Herri Ikastola



Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

5eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio

943 134 889 f argine/jantziak

itzilizaso@gmail.com
Tel:943 83 07 84



Lizaso Dekorazioa
Eusko Gudari, 48 20810 Orio

TXUKUN LORAZANTZA, S.L.

Tel. 660 332 756 · 679 428 851

Lorzaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak



txukunlorazantza@hotmail.com

KAIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Arrantzale kalea, 8
T 943 244 685
ORIO (Gipuzkoa)

Zigordia kalea, 18
(S.Frantzisko kalearekiko izkina)
T 943 021 834
ZARAUZ (Gipuzkoa)

Erribera kalea, 10
T 943 543 323
ZUMAIA (Gipuzkoa)

Foru ibilbidea, 2
T 943 262 375
Azpeitia (Gipuzkoa)

www.kaioa.es



Aurtengoa bai epikoa

2010ean atera zuten lehen aldiz emakumezkoen trainerua uretara. Hamar urte pasa dira, **232 estropada jokatu dira, eta sei aldiz sailkatu dira Kontxako Estropadan**. Historia era historikoan iraulita, palmareseko aurreneko Euskotren Liga eta Kontxako Bandera, biak, etxean dira.



TESTUA: INTZA UNANUE ARRUABARRENA

ARGAZKIAK: LUNANUE ETA ARNAITZ RUBIO APREA

Urtebetez zain egon ondoren, iritsi zen halako batean, arraunzaleentzat arraunlarientzat bezain preziatua den Kontxako Estropada. Irailak 1, lehenengo igandea. Goizeko 8:00ak aldera herritarrak kalean, denak horiz jantzita. Haur, gazte zein heldu. Kontxako badiara iritsi eta ez zen beste kolorerik bistan. Horia.

Denboraldi osoan barruan gordetako *trapu handia* lortzeko grina atera zen iraileko lehenengoan. *Txiki*





“Hamar urtetan egindako lanaren emaitza izan da garaipena.”

Nadeth Agirre

“Egindako lanaz oso harro egon behar dugu.”

Gorka Aranberri

trainerua uretara sartzearekin batera entzun ziren lehen garrasiak.

Estropada hasi eta buruan jarri ziren neskak hasieratik, eta aldea handitzen joan ziren, *in crescendo*, zaletuen garrasiak aldearekin batera, ozenago. Ziaboga eman eta itzultzea zailagoa izan zela aitortu du Itxaso Azkonobieta arraunlariak. Hala ere., *itzuleran hortzak estutu eta aurrea hartzea lortu zuten* Xanti Zabaletaren neskek.

Konturatzera, estropada hasi, eta bukatu. 10:43.34ko



denborarekin gailendu ziren, sei segundoko aldea irabazita amaitu zuten lehen jardunaldia, garaipen zantzuekin. Zaletuek arraunlariekin batera arranplan ospatu zuten hainbeste urtez zain egon eta gero eskuratutako lehen jardunaldiko garaipena. Ez zen tartean nahikoa denbora, emakumezkoen trainerua txalotu eta eskaileretan gora berriz ere korrika igo ziren zaletuak, gizonetzkoen txanda hastear. Denbora onena egin zuten Jon Salsamediren mutilekbereren txandan. Hala ere, Santurtziko arraunlari baten palak patroiarena ukitu zuela salatu zuten. *Estropadaren lehen zatian gainontzeko traineruekiko aldea ateratzea falta izan zitzaizela aitortu du Martxel Aldai arraunlariak, eta gaineratu du, bueltan, berriz, Santurtzikoekin izandako pala talkak Mirotza traineruko arraunlariak pixka bat nahasi zituela dio.*

Bigarren txandan, ordea, aurrea hartu zuen Hondarribiak. Azkenean, bost segundoko aldearekin irabazi zion Oriori.

Iñaki Arostegi Orio Arraunketa Elkarteko presidentea gustura geratu zen neskek egindako lanarekin, *garaipen*

garrantzitsua lortu zutela dio. Bigarren igandean estropada ona egiteko gogoz joan ziren etxera. Mutilen kasuan, garaipena lortu nahi zuten, baina lehen txandan izandako *tirabirek* traineruari ez ziotela lagundu adierazi du. Hala ere, *estropada oso ona* izan zen Arostegiren esanetan.

Bigarren igandeko urduritasuna

Lehen jardunaldiak zaletuen eztarriak hartuta utzi bazituen ere, bigarren igandea ez zen atzean gelditu. Alde batetik, *Txikik* aurreneko estropadan irabazitako sei segundok lasaitasuna ematen zuten. *Mirotzak* galdutako bost segundok, ordea, nerbioak akabatu beharrean jarri zituen oriotarrak.

Emakumezkoen trainerua estropadari hasiera ematearekin batera jarri zen buruan, aurkariei ontzi bateko errenta aterata, eta aldea handitzea lortu zuten, estropada aurrera joan zen heinean. Historian lehen aldiz Kontxako Bandera irabaziz. Nadeth Agirre arraunlariaren esanetan, *gozatu* egin zuten arraunean.



Hala ere, azpimarratu du, aurtengo garaipena *hamar urtetan egindako lanaren emaitza* izan dela.

Estropada amaitu eta bandera jaso zutenean, inoizko harrera beroena egin zieten oriotarrek traineruari. Malko artean bat egin zuten arraunlarien eta zaletuen pozak, arranplan.

Gizezkoen estropadan, berriz, pisu handiegia izan zuten lehenengo igandeko segundoek. Zirrarak ez zen falta izan, ordea. Lehia estua izan zen Hondarribia eta Orioren artekoa. Brankaz lau segundo aurretik ere jarri ziren Salsamendiren mutilak, baina poparean Hondarribiak aurre hartu, eta lortutako errenta txikiari eutsi zioten azken unera arte. Gorka Aranberri patroiak azaldu duenez, *bueltako luzea oso gogorra* egin zitzaizen. Bandera irabazteko aukera bizirik zegoela adierazi du. *Hala ere egindako lanaz harro egon behar dugu.*

Bigarren sailkatuta ere, arranplan zain ziren zaletuak. Txalo zaparrada bero batekin Benito Lertxundiren *Mirotzak* kantua abestuz, datorren urter arte agurtu zuten Kontxako Bandera Estropada.





Itziar Olasagasti, arraunlaria: Txiki-k merezi zuen bere izena soinean eramango zuen garaipen handi bat. Istorio honen parte izatea sekulakoa izan da. Igandeko estropada ametsik gozoenean ere ez genuen amestuko.

Xanti Zabaleta, emakumezkoen traineruko entrenatzailea: Oso harro nago talde honetaz, oso langileak dira eta aurten lan itzela egin dute. Eta ezin da ahaztu herriaren babesa ere, asko estimatzen dugu. Guk asko eman dugu urte osoan, baina jaso duguna ere handia izan da.



Iñaki Arostegi, OAEko idazkaria: Egun zoragarria izan zen Kontxako bigarren igandea, historikoa. 2019a betirako Orioren historian geratuko da.

Eder Etxeberria, arraunlari ohia: Azken urteetan galdua zegoen zaletasuna. Aurten, bi taldeek egin duten lanari eta lortutako emaitzei esker, nolabait, berpiztu egin dute afizioa.



Jon Salsamendi, gizonetzkoen traineruko entrenatzailea: Politenak ez gara bakarka, baina hainbeste limurtu baditugu banderak, talde barruko giroagatik eta batasunagatik izan da. Bakoitzak bere izaerarekin asko eman dio taldeari.

Ibon Gaztañazpi, arraun aditua: Oraindik guri burura Manuel Olaizola, Domingo Mitxelena eta halakoak etortzen zaizkigun bezala, historiarako geratuko da aurtengo emakumeen trainerua.



Igon Lertxundi, OAEko lehendakaria 2006tik 2009ra: Nesken urtea ikusita, ikusia zegoen irabaztea tokatzen zitzaiela. Eta mutilekin ere esperantza handia genuen. Hala ere, aurtengo urtea izugarria izan da.

Zigor Gazpio, OAEko kidea: Urte zoragarria izan da eta baloratu egin behar dugu. Gaur egungo arraun munduan oso zaila da Oriok lortu duena lortzea. Oso gustura gaude.



Orio Arraunketa Elkartek, 2019ko arraun denboraldian historiaren zakuan metatu dituen datuak

12 **Emakume eta gizonezkoen traineru Ligak, biak batera lortu dituen elkarte bakarra da OAE.**

Xanti Zabaletaren arraunlariek, orain dela hamar urte trainerua atera zutenetik lehenengo aldiz etxeratu dute emakumezkoen Euskotren Liga, 55 punturekin. Bigarrenari (Arraun Lagunak) 12 puntu aterata.

Jon Salsamendiren mutilek ere lehenengoz lortu dute Eusko Label ligako lidertza, 213 punturekin. Bigarrenari (Hondarribia) 12 punturekin gailenduta.

33 **Emakume eta gizonezkoetan, bietan, Kontxako Bandera irabazi dituzten elkarten artean sailkatu da OAE.**

Aita Mari Zumaiako Arraun Elkartea izan zen lehenengoa titulu hau irabazten. 1984an eta 1987an Zumaiako mutilek irabazi zuten Kontxako Bandera, eta 2003an, berriz, emakumezkoak izan ziren garaile.

Zerrendan sartu zen bigarren arraun elkarte Pasai Donibane Koxtape izan zen. Gizonezkoetan lehenengo bandera 1924an irabazi zuen, guztira 10 aldiz izan da Donostiako Estropadetan garaile. Emakumezkoek, berriz, 2014an lortu zuten lehenengoz garaipena. Bost urtez jarraian izan dira irabazleak, 2018ra bitartean.

Eta, hirugarrenik, Orio Arraunketa Elkartea. Gizonezkoen traineruak 1901ean lortu zuen lehenengoz garaipena. Ordutik, 32 Kontxako Bandera ditu palmaresean. Emakumezkoek aurtan, lehenengoz estropada irabazteari esker, zerrendan sartu da Orio.

4 **Arraun denboraldiko lau titulu potoloak dituen elkarte bakarra da OAE.**

2019. urteko denboraldian, inoiz orain arte inork lortu ez zuen marka egin du OAE-k. Aipatu bezala, Eusko Label Ligan, Jon Salsamendiren trainerua izan da

garaile. Euskotren Ligan, Xanti Zabaletaren taldea. Aurtan, gainera, emakumezkoak izan dira garaile Kontxako Estropadan eta aurrez, 1901 eta 2017 urteen bitartean gizonezkoek 32 aldiz irabazi dute Donostiako Estropada. Beraz, elkarte bakarra da, Euskotren eta Eusko Label Ligak eta Kontxako emakumezkoen eta gizonezkoen estropadak palmaresean dituen.

4 **Gizonezkoen alorrean, aro modernoko bi traineru ligak irabazi dituzten elkarten zerrendan sartu da OAE.**

Arraun Kirol Elkartea Castrotarrak 2001 eta 2002 urteetan Euskal Traineru Liga etxeratu zuen. 2009an, berriz, TKE (Traineru Klubuen Elkartek sortutako arraunketa liga). Orio AEk, Euskal Traineru Liga 1996an, 1997an eta 1998an irabazi zuen. TKE liga, aurrenekoz, aurtan.

3 **Gizonezkoetan gaur egun dauden hiru ligak irabazi dituzten elkarten zerrendan sartu da:**

Astillero Arraun Elkartea da lehenengoa sailkapenean. 2003an eta 2005ean TKE liga irabazi zuen eta 2008an KAE-2 ligan garaile izendatu zen.

Bigarrenik, Kaiku Arraunaren Kirol Elkartek, 2011n 2012an eta 2013an eskuratu zuen TKE liga. 2006an, berriz, KAE-2 liga eta 2008an KAE-1.

Eta aurtan zerrendara gehitu da Orio AE, TKE eta KAE-2 ligetako garaipena eskuratuta, izan ere, 2012an, Orio "A" traineruak lortu zuen KAE-1 mailan liderra izatea.

1 **Arraun denborali berean, elkarteko emakume-gizon traineru guztiek beraien ligak irabazi dituzten elkarte bakarra da.**

“Gorputza eman behar diogu klubari, eta hori, herritarrek baino ezin dute egin”

Iosu Esnaola

Orio Arraunketa Elkarteko presidentea

Iosu Esnaola (Orio, 1986) izango da Orio Arraunketa Elkarteko presidentea datozen lau urteetan. Orain arte eraikitakoari jarraipena ematea du xede, *kalitatea* ardatz.

DORLETA AGIRIANO LAI

Hala, futbolaria profesional modura marraztutako ibilbidea amaitutzat eman, eta aurrerantzena, kirol munduaren aurpegi berri bat ezagutuko du Esnaolak; zuzendari modura, eta herriko arraun elkartean. Ilusioz egin dio aurre aro berriari.

Etapa berri bat hasi duzu orain, arraun elkarteko presidente gisa. Zein modutan heldu diozu erronka berri honi?

Ilusioarekin, batik bat. Beti esan izan dut ilusioa dela soberan dudana gauza bakarra. Denborarekin ikasiko dut zer egin egoera bakoitzaren aurrean, baina uste oneko itxaropena dut; izan ere, uste dut lantalde ona dudala aldamenean. Taldekide bakoitzak ekarpen handia egin dezake bere arlotik eta estrategia propioa du buruan, garatze bidean. Abiapuntu ona iruditzen zait alde aurretik planteamenduak buruan izatea, lan horietarako prestatuta baitaude guztiak. Hori zen nahi nuena: batez ere, jende prestatua izatea. Hasteko gogoz nago, eta pixkanaka emango diogu forma gure lanari.

Zerk bultzatu zizun futbolekit arraun mundura saltoa ematera?

Beti gustatu izan zan kirol zuzendaritza, eta hainbat futbol taldetan laguntza eskatu izan didate arlo hori jorrazteko. Bestalde, arrauna beti atsegin eta jarraitu izan dut, eta nire herriko arraun elkartea zuzentzea aukera bikaina iruditu zitzaidan. Nire familiak

hasieratik animatu nau erronka berria honetan, eta buru- belarri sartu naiz proiektuan.

Horrez gain, nik uste dut kirol batean hartutako esperientziak gainontzekoetarako ere balio duela. Futbol mundua, gustatu ala ez, oso ondo egituratuta dago, eta nik jokatu izan dudana klubetan asko ikasi dut arlo horretan. Horregatik, kudeaketa arloan futbol munduan ikasitako esparru asko, arraun elkartean erabili daitezkeela uste dut.

Nola erabaki zenuen pausoa eman eta zure burua presidente izateko aurkeztea?

Ibon Huegun presidente ohiak uztailean proposatu zidan nire burua aurkezteko, eta sekulako ilusioa egin zidan. Bikotekidearengana joan nintzen, eta proposamenaren berri eman nionean, esan zidan: *Hori da zuk nahi duzuna*. Ez dut sekula ahaztuko. Orduetik ez dut ia lorik egin, azpilanari ekin zion nire buruak.

11 bazkidek osatu duzue Gida-Batzorderako lantaldea, arraun elkartean arituak diren kide batzuk tartean.

Zenbait kide beti izango dira elkartearen parte eta beti egongo dira laguntzeko prest. Datozen lau urteetan zuzendaritzan izango garen pertsonak, ordea, berriak gara honetan.

Dena den, esparru desberdinak jorratzen dituen zuzendaritza osatu nahi izan dut, eta ahal dela, orain arte arraun munduarekin harreman gutxi izan duten



Iosu Esnaola Arraunetxe parean. DORLETA AGIRIANO LAI.

lagunak elkartzen saiatu naiz. Horrez gain, arlo bakoitzean onenak biltzea izan da nire helburua, kide bakoitzak bere esperientziarekin elkarte aberastu dezan. Dagoeneko ibilbide bat egin dutenak izango ditugu alboan, eta nire ustez, hala izan behar du derrigor. Hemen ez dago hutsetik hasterik, eta beharrezkoa da zuzendaritzen arteko trantsizioa naturala eta elkarrenganakoa izatea. Nik ez nuen putzura jauzi egin nahi putzuan urik egon gabe. Hala, babes handia da niretzat lehendik zuzendaritzan aritutakoen babesa eta laguntza izatea

Zeintzuk dira datozen lau urteetarako zehaztutako helburuak eta ikuspegia?

Orain arteko ibilbideari jarraipena ematea da asmoa. Gauzak ondo doazenean hala mantendu behar dira, eta ni ez naiz ezer aldatzera etorri. Dagoeneko oinarrian dagoena hobetu nahi dugu, ahal bada behintzat. Kalitatea da beti helburu izan dudana hitza. Bakoitzak egindako lanak kalitatea eman behar dio aurretik eraikitakoari. Horretarako, lasai egin behar ditugu gauzak, epe luzerako ikuspegiarekin. Beti eman diot garrantzia ibilbideari.

Zaila izango da kirolari dagokion arloa hobetzea, maila gorenetan lehiatzen diren taldeek zein gazteek orain artean egindako lana ezin baita ia hobetu. Hala ere, helburuetako bat da gazteek arraunean abiatutako

ibilbideak jarraipena izatea etorkizunean; alegia, kimuen mailan arraunean hasten direnek bide horri heltzea. Horretarako, gazteak zaindu behar ditugu.

Zein da aurretik elkartearen zuzendaritzan aritu direnen lanari buruz duzun iritzia?

Kanpotik begiratzean, zaila da lanari balioa ematea. Orain, zuzendaritzaren lana gertutik ezagutzeko aukera izan dut, eta esan dezaket izugarria izan dela egin dutena. Elkarateak barne mailako egituraketa egokia garatu du, baita kirol arloan emaitza onak izan ere. Orain, haiek zoriontzea eta eskerrak ematea baino ezin dut egin. Orion ez dugu behar beste balioesten arraun elkarte. Hori irauli nahi nuke: herritarrek klubari duen balioa ematea gustatuko litzaidake. Elkarte eta herria nolabait lotu nahi nituzke; hurbildu. Arraunetxea eta herria aldebanatzen dituen zubia ez dadila muga erreala izan.

Gorputza eman behar diogu klubari, eta hori, herritarrek baino ezin dute egin. Oriotarrok gara garrantzitsuenak hori lortzeko bidean.

Amaitu berri den denboraldia, kirol arloan bikaina izan da Orio Arraunketa Elkartearentzat. Nola bizi izan duzu?

Azken bi-hiru hilabeteetan harreman estua izan dut aurreko zuzendaritzarekin eta elkarteko kideekin, eta gertutasun horrek, gehiago gozarazi eta sufriarazi dit. Oso polita izan da, harrena bikaina egin baitit elkarateak.



Sara Garcia-Cañedo. A. LARRAÑAGA

“Ugal-zikloa osasuntsu egotearen sintoma dela ulertarazi nahi dugu”

Sara Garcia-Cañedo

Ilen proiektuaren sortzailea

Azken hamarkadetan, erabili eta botatzen diren tanpoiak eta konpresak zabaldu dira emakumeen artean. Produktu horiek jasagarriak ez izateaz gain, ingurumenarentzat eta osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen osagaiak dituzte. Horren aurrean konpresa berrerabilgarriak eta ekologikoak sortu ditu Sara Garcia-Cañedok.


AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Sara Garcia-Cañedo eta Janire Mañesel Ilen proiektua abiatu zuten duela lau urte, eta egun bi ardatz nagusi ditu ekimenak. Alde batetik, oihalezko konpresa berrerabilgarriak eta ekologikoak egiten ditu Aiako Andatza auzoan duen tailerrean. Eta bestetik, hilekoaren kultura sustatzea eta emakumearen gorputzaren inguruan gizarteak inposatutako sineskerekin haustea

ere badu helburu.

Konpresa berrerabilgarriak eta ekologikoak dira Ilen proiektuaren ardatzetako bat. Zer berezitasun dute?

Supermerkatuan eros ditzakegun ohiko konpresen forma dute, baina oihalezkoak dira. Arreta berezia jartzen dugu konpresak egiteko erabiltzen dugun materialetan, horretarako, zertifikatu ekologikoa duten



Ilen proiektuko konpresa berrerabilgarriak. A. LARRAÑAGA

eta bidezko merkataritzaren bidez salerosten diren oihalak erabiltzen ditugu. Konpresak egiteko, kotoizko bi oihalen artean Pul izeneko oihal iragazgaitz bat eta kotoizko xurgatzaile bat jartzen ditugu, eta horrela, xurgatze maila desberdinetako konpresak lortzen ditugu. Izan ere, emakumeen beharretara egoitzen den produktua sortzea oso garrantzitsua da guretzat. Horregatik, lodiera eta tamaina desberdinetako konpresak eskaintzen ditugu.

Erabilitakoan zakarrontzira botatzen diren konpresak zabalduak daude gizartean. Zer egin behar da konpresa berrerabilgarri bat erabilitakoan?

Behin erabilitakoan, konpresa zakarrontzira bota beharrean, ur hotzetan beratzen utzi behar da, odola ur beroarekin oihalean sartzen baita. Konpresak ur hotzetan ordu pare bat pasatzen dituenean, odola oihaletik askatzen da eta ontziaren oinarrian geratzen da. Komenigarria izaten da, noizean behin, ur hotzari ur oxigenatu edo esentzia-olio pixka bat botatzea ere.

Ondoren, konpresak garbigailuan edo eskuz garbitu daitezke, bakoitzak nahi duen bezala, baina lixiba edo xaboi gogorrak ez erabiltzen saiatu behar dugu, konpresa ekologiko eta berrerabilgarrien helburuetako bat toxikoak gure azalarekin kontaktuan egotea ekiditea baita.

Ohiko konpresak kaltegarriak izan al daitezke emakumeentzat?

Ohiko konpresek osasunarentzat toxikoak izan daitezkeen produktuak eta zuritzaileak dituzte. Emakume batzuk produktu horiek onartzen dituzte, baina badira konpresak erabiltzen dituztenean azkura handia izaten duten emakumeak ere. Beraz, konpresa ekologikoak eta berrerabilgarriak aukera aproposa dira

emakume horientzat.

Nola sortu zitzaizun mota horretako proiektu bat abiatzeko aukera?

Bi emakumek abiatu genuen proiektua duela lau urte. Landa eremuan proiektu kolektiboak sustatzeko topaketa batean ezagutu genuen elkar, eta osasuna, ingurumenarekiko errespetua eta emakumeen ahalduntzea uztartzen dituen proiektua abiatzea erabaki genuen. Hasieran, guretzat eta ingurukoentzat konpresak egiten hasi ginen, eta ekimenak arrakasta zuela ikusita, urratsa aurrera ematera animatu ginen. Ni Aian nago, eta nire kidea Asturiasko herri txiki batean.

Konpresa berrerabilgarri hauek sortzeko, ereduren batean oinarritu al zarete?

Konpresa mota hauek asko erabiltzen dituzte Latinoamerikan. Horrez gain, Espainiako Estatuan ere badira honelako konpresak ekoizten dituzten beste hainbat enpresa txiki.

Gaur egun nolako da zuen produkzio sistema?

Gure ekoizpena txikia da, eta geuk egiten dugu prozesu guztia: materialak aukeratu, oihalak moztu, muntatu eta josi, baita administrazio, marketin eta salmenta lana ere. Andatza auzoan bizi naiz eta etxean bertan dut tailerra.

Konpresa berrerabilgarri eta ekologikoak eskaintzeaz gainera, hilekoaren kultura gizarteratzea ere badu helburu Ilen proiektuak.

Bai, emakumeon gorputzaren inguruan hainbat sineskera inposatu dizkigute, eta garrantzitsua iruditzen zaigu autoezagutzaren bidez horiek gainditzea. Gure helburua, emakumeok pertsona ziklikoak garela ezagutaraztea eta gaiak kontzientziatzea da. Hilekoaren zikloa edo ugal-zikloa osasuntsu egotearen sintoma dela ulertarazi nahi dugu, eta ez bizimodua zailtzen digun oztopoa. Horren aurrean, patriarkatuak arautzen duen sistema lineal batera egokitu beharrean, emakumeon bizimodua gure ziklora moldatzea proposatzen dugu, gorputza errespetatuz. Izan ere, emakume guztiok bizi dugun prozesu fisiologikoa bada ere, gaia tabua da gizartearentzat, eta askotan lotsa edo estigma sor dezake. Behin baino gehiagotan entzun behar izaten ditugu emakumeok hilekoarekin erlacionatutako komentarioak: *Zer gertatzen zaizu? Hilekoarekin al zaude?* modukoak.

Zer moduzko erantzuna izan du proiektuak?

Gure laugarren urtea abiatuko dugu, eta pixkanaka hazten ari da proiektua. Hasieran, zalantza asko genituen, baina eskarmentua hartzen joan garen heinean, bidea definitzen joan gara. Duela urtebetetik, esaterako, emakumeen osasunean eta hilekoaren kulturaren arreta jarri dugu. Hainbat topaketatan eta azokatan parte hartzen dugu, eta ohartu gara, emakumeok hilekoaren zikloaren inguruan zalantza asko ditugula. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu emakume bakoitzak bere gorputza eta hilekoaren zikloa ezagutzea, eta horretarako baliabideak eskaintzen ditugu Ilen proiektuan.

Herriaren bihotza zabaltzeko lanak

Plaza zabaltzea eta oinezkoentzako jartzea da udalaren asmoa; eta aldi berean, portua zabaltzeko lanak egingo ditu Jaurlaritzak urritik aurrera. Hala, aldaketak izango dira herriko sarrera-irteeretan. Aurreikuspenen arabera, bederatzi hilabete inguru iraungo dute obrek.

TESTUA: DORLETA AGIRIANO LAI
ARGAZKIAK: KARKARA


Orioko Plaza oinezkoentzako jartzea eta moilako errepidea egokitzea, hemendik aurrera bi noranzko izan ditzan. Nagusiki horiek dira herriko plazan eta inguruan hasi dituzten lanen helburuak. Orioko Udalaren aurreikuspenen arabera, bederatzi hilabetean amaituko dituzte berritze eta egokitze lanak, baina egiteko dauden bi obrak ezkontzeko moduaren arabera izango da beharrezko denbora.

Bi obra, aldi berean

Udaleko ordezkariak iraila hasieran eman zuten lanen berri, herritarrei zuzendutako bi bilera irekitan, kultur etxean. Hala, proiektuaren barruan, azaldu zuten bi obra nagusi izango direla datozen hilabeteetan. Batetik,

plaza berritzeko lanak hasi ditu dagoeneko udalak; bestetik, baina, moila zabaltzeko lanak ere egingo dira urritik aurrera. Dena den, Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzaren ardura da portuko obrak egitea, ez udalarena. Plazako lanen bidez, oinezkoentzako eremua zabaltzea da asmoa, egun betetzen duen biribilgune funtzioa atzean utzita. Horretarako, inguruan dauden aparkalekuak kentzea eta autoen zirkulazioa kaira lekualdatzea da xedea, egungo espazioaz gain, gaur egun plaza kanpoaldetik besarkatzen duen eremua (nagusiki aparkalekuz osatua dagoena) plazaren parte izan dadin. Horrek moilari zuzenean eragiten dio, ordea, eta egungo gaitasuna mantendu dezan, Jaurlaritzak ebatzi du portua ere handitu beharra dagoela.

Herriko plazako kioskoa mantendu egingo du udalak,



Plazako lanak amaitutakoan horrela geratuko da ingurua.



Bederatzi hilabete inguru iraungo dute plazako obrek. KARKARA

baina aldaketekin. Egurra berritzeaz gain, egiturak jatorrian zuen forma berreskuratuko dute; laukizuzena izango da, eta zabalagoa. Pixka bat atzera mugituko dute gainera, plazan lekua irabazteko.

Pausoz pauso

Faseka egingo dituzte plazako lanak, epeka. Aritzaga kalea izango da abiapuntua, eta ekin diete bertako lanei dagoeneko; lur azpiko instalazioak berritu, ur zikinak antolatu eta saneamendu lanak egingo dituzte. Aritzaga kalean amaitzean, Hendaia plazara egingo dute salto, eta han hasiko dira lanean. Bi-hiru hilabete iraungo du aurreneko fase horrek, eta gero, plazarantz hedatuko dituzte obrak, Txistulari kalean barrena. Bertan Aritzagako kaleko lan berdinak egitea aurreikusitako dute, horrek alde zuzenetik eskatzen duen lur azpiko azterketarekin, Aritzagan egin bezala. Dena den, faseen nolokotasunean aldaketak egon daitezkeela nabarmendu du udalak, baita epeen planifikazioan ere.

Bestalde, Jaurlaritzak oraindik ez du adierazi zehazki zein egunetan abiatuko dituzten portuko lanak, baina urrian izango dela iragarri dute. Plaza berritzeaz arduratuko den enpresa berak berregokituko du moila; Altuna eta Uria eta Viuda de Sainzek osatutako taldeak, alegia. Dagoeneko sinatu dute indarrean egongo den akordioa, eta horren arabera, 1.800.000 euroko aurrekontua izango du enpresak obra bakoitza egiteko.

Udaleko ordezkariak jakinarazi dutenez, batez ere, obren eraginez eremuan mugituko diren kamioien trafikoak eragingo dio batez ere herritarren autoen

zirkulazioari. Gainera, kamioiak etengabe ibiliko direnez, aurrera eta atzera fase guztiak amaitu arte, ez dute plaza inguruan lurzorua jarriko, ibilgailuen mugimenduaren ondorioz hondatu ez dadin. Hala, guztia amaitu bitartean, betoia ordezkatuko du lurra.

BEHIN-BEHINEKO ALDAKETAK

Lanak amaitu bitartean, aldaketak izango dira autoentzako sarreretan eta irteeretan. Dagoeneko hasi da Aritzaga kaleko fasea, eta une honetan, Txistulari kalean kokatu dituzte herrirako sarrera zein irteera. 2,40 metroko altuera baino gehiago duten ibilgailuen kasuan, Txanka-Hondartzako errepidetik irten beharko dute laster; Txistulari kalea soilik sarrera izateko egokitzen dutenean. Dena den, Orioko Udalak jakinarazi duenez, aurki Diketiz izango da irteera Txistulari kaletik beharrez, eta hor mantenduko dute lan guztiak amaitu bitartean. Obrek aurrera egin ahala, baina, baliteke beste bideren bat itxi behar izatea eta beste aldaketaren bat egotea. Kasu horietan, Txanka-Hondartzako bidea erabili beharko dute herritarrek.

Bestetik, aurtengo San Nikolas jaietan obra bete-betean izango da plaza ingurua. Beraz, festetako ospakizun eta egitasmoak aurten nora lekualdatu daitezkeen aztertzen ari da dagoeneko udala.

“Beharrak bultzatu gaitu jauzi egitera”

Idoia Larrañaga eta Alaine Garro

Eragin eskubaloi elkarte

Maiatzean aurkeztu zuten Orioko eskubaloi elkarte berria: Eragin. Datorren denboraldian ehun neska inguru ariko dira kamiseta horia soinean, eta *gogotsu* murgildu dira ibilbide berrian jokalaria zein entrenatzaileak.

DORLETA AGIRIANO LAI

Bost talde, ehun jokalaria inguru, eta zenbakitan nekez zenbatu daitekeen gogo. Hori guztia abiapuntu eta oinarri hartuta, bide berria urratzeari ekin diote Eragin eskubaloi klubekoek. Elkartearen sortzaileek maiatzean eman zuten elkartearen sorreraren berri, eta ordutik, dagoeneko parez pare duten denboraldirako motorrak berotzen aritu dira. Hala nola, eskubaloi udalekuak egin zituzten ekainean, Karela Torneoa antolatu zuten abuzturako, eta denboraldi-aurrean ere murgildu ziren hilabete berean. Irailean sartuta, klubeko jokalaria zaharrenak, jubenilak, hasi dira sasoiko aurreneko norgehiagokekin. Hala, ibilbide berri honen aurreneko geltokira iritsi da Eragin.

Aurreko denboraldian, Orioko Herri Ikastolak eta Zarautz Kirol Elkartek adostutako hitzarmena oinarri, Orioko 70-80 neska aritu ziren eskubaloian, Zarauzko hainbat taldetan banatuta. Parte hartzea *handia* zela iritzita, *erronkari* heltzea erabaki zuten hainbat pertsonak. *Egoera ikusita, hausnartu egin genuen. Otsaila inguruan, eskubaloi munduan aritu garen eta aritzen garen hainbat kidek erabaki genuen agian iritsi zela unea neska horiei beren herrian jokatzeo aukera emateko, klub bat sortuta*, azaldu du Idoia Larrañaga Eragineko entrenatzaileak. *Jokalarien gurasoen zein herritarren laguntza ezinbestekoa* izango zela aintzat hartuta, Zarauzko klubarekin harremanetan jarri eta aurrera egin zuten, Eragin sortzeko aurreneko pausoak emateraino. *Aitzindariak gara herrian, eta itzal handiko erronka dugu esku artean, baina gogotsu gaude*, dio

Larrañagak. *Laguntza handia* jaso dutela azaldu du, gainontzeko klubaren eskutik esaterako, eta herrian ere Eraginen jaiotzak *harrera ona* izan duelakoan dago.

Beharrak bultzatu gaitu jauzi egitera. Eskubaloian jokatu nahi duten neskek daude Orion, eta behar horri erantzun diogu, adierazi du. *Pertsona guztiek izan behar dute gustuko duten kirola zein den erabakitzeo aukera, eta gero eta zabalagoa izan aukera sorta, orduan eta hobeto. Kirola ez da soilik arrauna edo futbola.*

Eraginek izango du berezitasun bat: soilik neskez osatutako kluba da, momentuz, behintzat. Ezaugarri hori duen Gipuzkoako eskubaloiko klub bakarra da. Eskola kiroleko ikasleak, kimuak, infantilak, kadeteak zein jubenilak ariko dira Orion denboraldi honetan, eta guztira, bost talde lehiatuko dira beren kategorietan. Aurten jubenilen mailan ariko diren jokalariai dira elkarteko helduenak; hain zuzen, orain arte Zarauzko klubarekin aritu direnak. Eraginen izenean aurreneko jokatu dutenez, Gipuzkoa mailako ligan hasiko dira. *Belaunaldi gazteagoentzat bultzada izan dira jokalaria horiek. Txikienek ikusi egin dituzte Orion entrenatzen eta jokatzen, eta eredu bihurtu dira azkenean.* Hala, pixkanaka gora egin du Lehen Hezkuntzan eskubaloian hastera animatu diren nesken kopuruak, aiarrak barne.

Orain arte, Zarauzko bost taldetan bereizita jokatu dute Orioko jubenilen taldeko hamabost gazteek, lehen herrian batera aritzen baziren ere. Tartean da Alaine Garro. *Gogo handia dugu berriro elkarrekin jokatzeo*, azaldu du jokalariai. Zera gehitu du Larrañagak: *Gogor*



Idoia Larrañaga eta Alaine Garro. KARKARA

egin dugu lan denboraldia prestatzeko, eta ez da erraza izan. Azken denboraldian jokarariak talde desberdinetan aritu direnez, orain, garrantzia handia eman diogu talde kohesioa lantzeari eta talde giroa sortzeari. Talde beraren parte direla ikusi eta sentitu behar dute berriz.

Helburua ere argi dute: Denboraldi honetarako helburua da, ahal bada, inork eskubaloian jokatzeari ez uztea; kirol honetan beren ibilbideari ekin dioten ehun jokalariek eskubaloian jarraitzea. Hori lortzen badugu, gauzak ondo egiten ari garenaren seinale, adierazi du. Gauzak egiteko modu horrek ezinbestean barnebilduko ditu parte hartzea eta gozamina: Neskek jokatzeari eta ondo pasatzea nahi dugu. Ondoren emaitzak etortzen badira, primeran. Baina lan gogorraren eta motibazioaren eraginez egoten dira emaitzak, gehitu du Eragingo kideak: Zerbaiten ondorio dira emaitza onak.

Gainera, azpimarratu du bereziki zaila izaten dela 16-17 urtetik aurrerako neskek kirola egiten jarraitzea,

“Bidea hasi dugu, eta ikusiko dugu nora eramaten gaituen”

eta erronka horri aurre egiteko prest agertu da kluba: Eskubaloian hasten dira, baina denborarekin, batxilergora iristen direnean batez ere, beherakada handia antzematen da parte-hartzean. Guk pentsatu genuen, Zarautzeraino joan beharrean etxean jokatzeko aukera izanez gero, errazagoa izango litzatekeela beraiantzat eskubaloian jokatzeko segitzea, dio Larrañagak.

Bestalde, eskubaloian munduan jokalariekin balore batzuk lantzea ere badela ardatza irizten dio Larrañagak; hala nola, adiskidetasuna eta errespetua taldekideekin, entrenatzailearekin, ingurukoekin. Ikasi behar dute ez daudela bakarrik, eskubaloia talde kirola dela, eta taldean lan egin behar dutela. Adiskide modura ikusi behar dituzte aldamenean dituzten taldekideak. Pixkanaka, konpromisoak hartzeko gaitasuna eta diziplina garatu behar dituzte, nabarmendu du entrenatzaileak. Balore horiek kirol arloan landuko dituzte orain, gazte direla; baina gerora, etorkizunean, bizitzako edozein eremutarako erabilgarriak izango dira. Horretaz gain, helburuetako bat denez klubeko helduenek pixkanaka gazteagoekin entrenatzaile lanak betetzea, hainbat balio barneratuz gero, ondoren gazteenei helarazteko gai izango direlakoan dago Larrañaga: Ziklo bat da, azken finean.

Ez dakigu nolakoa izango den Eragingen ibilbidea, ez dakigu noraino helduko garen. Momentuz hau da errealitatea, bidea hasi dugu, eta ikusiko dugu nora eramaten gaituen. Lau urte badira, hala izan daitezela, eta luzeago jotzen badu, ongi etorriak, adierazi du Larrañagak.

edartegia
ANTILLA
jateketa

Abeslari kalea. 2 - Tel. 943 83 23 09

ARISTERRAZU
 jatetxea

Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

arkaitz taberna
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**

OGI BERRI

943 578 176
 Herriko enparantzan

lzozki naturalak Opilak

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

ETXEKO BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA

PARRILA

BODEGON SARASUA
 ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

niko
 taberna

Karta · Pintxo tradizionalak
 Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

ASADOR XIXARIO

Eusko Gudarien Kalea, 2
 Tel. 943 830 019 - ORIO

Zaragueta
 Herri Eskola *orio*

telefonoa: 943 89 40 52
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Portu
 ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, 2/g
 943 89 44 34
 20809 AIA-ORIO

kazolitat, baserriko oilastan parrilako errekiak, eguneko menua...

SU KIA
 TABERNA · JATEXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 892 129
 ABAROMENDI 38, 1. BAXUA

kutixi
 kafetegia
 GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orio
 Tf: 943 13 15 17

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

Carmen eta Txomin
 ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

ITZALA

kartetan jokatzeko proposa

tel. 943 83 12 59

KOLON TXIKI
 enartegia
 jateketa

Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

ORIOKO HERRI IKASTOLA



Gilen Aizeaga

Planeta gure ardura da

Lurra; urdin eta berdez inguratutako planeta zena, gaur egun, ez da lehen bezalakoa, gaur egun, lurra gris koloreko planeta bat dela esango nuke. Izan ere, gizakia iritsi denetik kalte besterik ez diogu egin, kutsadura eta aldaketa klimatikoa honen adibide garbiak dira.

Aldaketa klimatikoak bizidun guztien bizitzak baldintzatuko ditu horrela jarraitzen badugu, horregatik, ordua da mundu guztiko herritarrek ardura hartzeko. Jada, jarri dira hainbat proiektu martxan.

Energia berriztagarriak, plastikoen aurkako mugimenduak, eta garraibide berriak bezalako aldaketak dira aldaketa bat sortuko dutenak, baina ez dira ezer gu gabe, gure laguntza ezinbestekoa da. Egin ditzakegun gauzak ez dira gutxi: kotxearen erabilera murriztea, garraibide publikoak edo bizikleta erabiltzea, adibidez. Baita, berrerabiltzea eta birziklatzea, edo plastikoa duten objektuen erosketa murriztea ere.

Hau guztia kontuan harturik, asko dira guk egin ditzakegun gauzak, ordua da martxan jartzeko.

Gaur egun, lurra gris koloreko planeta bat dela esango nuke.

“Txikitako ametsa bete dut”

Itxaso Azkonobieta

Txikiko arraunlaria

LHko 3. mailako ikasleak Itsasori elkarrizketa egiteko galderak prestatzen aritu gara. Kontxako Estropadan irabazitako banderarekin agertu denean, ezin baretu guztion emozioa!

Noiz hasi zinen arraunean?

9-10 urterekin, infantiletan; eta duela 5 urte hasi nintzen traineruan.

Erraza al da arraunean egitea?

Ematen duena baino zailagoa, teknika handia behar da; gu oraindik ikasten ari gara.

Askok entrenatzen al duzue?

Astean 6 egunetan, eta 10 hilabetean zehar.

Zenbat pisatzen du traineru batek?

200 kilotik gora; gure trainerua fibrazkoa da, lehen egurrezkoak izaten ziren.

Seguru al zeundeten Kontxa irabaziko zenutela?

Oso sinetsita geunden, aurten tokatu egiten zen. Gure buruarengan konfiantza handia genuen, eta oso gaizki egin behar genuen galtzeko.

Urduri al zeunden egunean bertan?

Oso! Ezpainetan ditudan pupa hauek urduritasunak sortutakoak dira.

Gogorra izan al zen Kontxako estropada?

Estropada guztiak dira gogorak, sprintak izaten baitira. Presio eta urduritasun handia genuen Kontxan, baina izugarri gozatu genuen.

Dibertigarria al da irabaztea?

Lan handia egin eta gero, oso pozik jartzen gara. Baina, momentu txarretatik ere asko ikasten da.

Ziaboga ematea zaila al da?

Ziabogan segundo asko gal litezke, eta teknika handia behar da; horregatik, asko entrenatu behar da.

Askok pisatzen al du Kontxako banderak?

Bai, beste banderek baino gehiago, bai makilak, baita oihalak ere.

Kontxa ala liga?

Kontxa, dudarik gabe; Kontxa ametsa da.

Gustatuko al litzazuke emakumezko batek zuek entrenatzea?

Ez litzaidake inportako, baina Xantirekin oso-oso gustura gaude.

Nolako izan zen herriak egindako harrera?

Ortzaikan sartu ginen kamioian, eta herrian sartzekoan izugarrizko jendetza zegoen, ez genuen espero; oso-oso hunkigarria izan zen.

Jarraituko al duzu arraun egiten?

Bai, oraindik oso gaztea naiz.

Karkara³⁰urte

karkara.eus



KARKARA, rebista bat?

Miren Etxeberria

“Ezagutzen ez zuten zerbaiteko dirua emateko eskatzen genien. Eta jende askok esan zigun baietz, oso ondo jakin gabe zer zen KARKARA”.

Zuetako askori ez zaio burutik pasatu ere egingo pentsatzea KARKARAK hitzak esanahi bakarri zuela orain dela 30 urte. Egun, inor gutxi izango da gure herrian aldizkaria ezagutzen ez duenik. Baina, bai, hala zen, zin dagizuet.

—Aizu, barkatu, elkarrizketa bat egin nahi nizuke KARKARA aldizkarirako, eta...

—Zer? Karkara, zer?

—Bada, begira, herriko batzuk elkartu gara, eta rebista bat egin nahi dugu...

Zer neketsua zen hura! Baina bazen beste egiteko nekagarriago eta desatseginago bat: publizitatea lortzea; dirua lortzea, alegia. Establezimendu batean sartu, eta... *Kaixo, barkatu, KARKARA izeneko aldizkarikoa naiz, eta galdetu nahi dizut ea publizitatea jarri nahi duzun, 5.000 pezeta balio du...* Pentsa, ezagutzen ez zuten zerbaiteko dirua emateko eskatzen genien, publizitatea jartzearen truke. Eta jende askok esan zigun baietz, oso ondo jakin gabe artean zer zen KARKARA. Haiek guztiek ere meritu makala ez!

Beste ohiko galdera bat hau izaten zen: *Eta zu, zein zara? zer etxetakoa, zer familiatakoa? Eta besteak?* Egia esan, ez zen harritzekoa, zer esana eman genuen-eta hasiera hartan. Horrezaz gain, *etiketa* ere jarri behar izaten zen. *Zer ote dira PNVkoak, HBkoak, EAKoak...?* Nitaz galdera hau egin omen zuten: *Eta lepoan fular palestinoa erabiltzen ez duen nerabe txolin ezpaingorri hori euskalduna al da?* Ene! Horrela kontuak.

Nolanahi ere, lortu genuen helburua, eta horren lekuko zarete zuek ere. Mila esker amets hura egia bihurtzen lagundu duzuen guztioi; herritar, laguntzaile, langile eta guzti-guztioi eskerrik asko.

Orain, KARKARA hitzak bi esanahi edo adiera ditu.

eta hamaika bitxikeria



Irati Agirreazaldegia

Ez zait ahaztuko

"Luzea izan zen bere laburrean estropada eta arin eman behar izan nuen ziaboga. Eskerrik asko KARKARA".

Lerriako erredakzio handia utzi eta KARKARAKo lantalde txikian hasiberri. Umetatik etorri izan naiz hona, beraz, Orio ez zen niretzat atzerri. Baina idatzi behar nituenean zenbait albiste, elkarrizketa edo berri, oriotarregana gerturatutakoan entzuten nien Orion jaioa ez izanik, errio aldamenen bizi arren, Orio ez zela nire herri.

Hala ere, herriko kaleak bizikletaz pasa eta iristen nintzen Kultur Etxeko bulegoko atera, berriak idaztera. Maketatzaile propioa zuten medioetatik etorrita, oinarritzko maketaren gainean aldizkaria moldatzera. Horretarako kolaboratzaileen testu luzeegiak moztera, argazkien tamaina txikitzea eta hori guztia egin arren ezin nahi genuen informazio guztia KARKARAKo orrietan atera. Horregatik sartzen genuen batzuetan beste hainbat berri webgunera.

Herrian batera eta bestera ikusten nuen ura hondartzako arrokei zein errioko ertzei joka. Gogoan dut Errikotxiako bertsolariekin erreportaje baterako egurrezko ontziraleku gorri batean argazkiak ateratzera joan eta nola hasi ziren saltoka. Ni, berriz, beldurrak jota. Eskerrak ez nindutela uretara bota, bestela bertsotarako gai izango lukete orduko anekdota. Elkarrizketa, albiste, iritzi eta argazki. Oriotarren eta aiarren artean pasa nituen ordu asko eta jaso nuen kontu aski. Oroitzapen on zein eskasagoekin beteko nuke makina bat saski, baina denak kontatzea luze eta komenigarri ez, seguraski.

Luzea izan zen bere laburrean estropada eta arin eman behar izan nuen ziaboga. Eskerrik asko KARKARA, nik oriotarrei eta aiarrei emana izan zen urte haietako proba eta haiek niri emana ere nire baitan geratuko da.

Urrian hasiko da Bingoa



Irailarekin batera ikasturte berria abiatu bada ere, Orioko Zaharren Babeslekuetik jakinarazi dute, urrian emango dietela hasiera beren jardueri. Izan ere, irailaren 9tik 17ra bidaian izan dira herriko erretiratu eta pentsiodunak Zaharren Babeslekuarekin, eta Portugalgo Algarve ingurua ezagutu dute. Bederatzi eguneko bidaia egin dute oraingoan. Eta Portugalgo hainbat txokotara bidaiatu dute. Bidaiariaren esanetan oso gustora ibili dira, eguraldi ezin hobearrekin. Bidaia zela eta, urriaren 2an, asteazkenarekin, egingo dute ikasturteko lehen bingo saioa,

kultur etxean. Ohiturari jarraituz, asteazkenero bilduko dira ikasturtean zehar, 16:30etik 18:30era. Bestetik, pentsio duinen aldeko elkarretaratzeak egiten jarraitzeko asmoa ere du Zaharren Babeslekuak. Urriaren 3an, ostegunean, egingo dute lehen, 18:30ean Herriko Plazan. Aurreko ikasturtean bezala, ostegunero bilduko dira, eta 10 minutuko elkarretaratzea izango da. Herriko pentsiodunen eta erretiratuen elkarteko zuzendaritzatik gogorarazi dute, elkarretaratzea egiten duten bitartean elkarteko taberna itxita egongo dela.

Politika

Orioko udalbatzarrak bideoan zuzenean ikusi ahal izango dira hemendik aurrera.

Orioko Udalak erabaki du aurrerantzean bideoan grabatuko dituela udalbatzarrak, interesa dutenek etxetik ikusteko aukera izan dezaten, zuzenean, streaming bidez; ala ondoren, Udalaren webgunean. Udala harremanetan jarri da Urolako Komunikazio Taldea kooperatibarekin eta haren esku geratuko dira alderdi teknikoak: Erlo telebistako teknikariak etorriko dira udalbatzarrak grabatzera eta zuzenean emango dituzte, streaming jario baten bidez. Etxean Erlo telebista sintonizatzen dutenek bertan ikusi ahal izango dute, eta, aukera hori ez dutenek, berriz, Udalaren webgunean (orio.eus) edo Karkara aldizkariarenean (karkara.eus) izango dute aukera. Lehen saioa, ostegunean Ostegun honetan izango da iraileko ohiko udalbatzarra eta hori izango da zuzenean emango den aurrenekoa. Karkara.eus webguneak zuzenean emango du eta, Udalaren webgunean egin behar diren egokitzapen teknikoak egiteko denbora ematen badu, bertan ere ikusi ahal izango da. Oraingorako denbora ematen ez badu, urriko udalbatzarretik aurrera ikusi ahal izango dira bilkuretako bideoak zuzenean.

Gizartea

Balearen arrantza irudikatzen duen taila Udalari eman dio Joxe Etxeberriak



Joxe Etxeberria oriotarrak zura lantzen eman du bere bizitza profesionala, Arin y Embil enpresan, eta bere kasa ere aritu da taillak eta egur-lanak egiten. Egin dituen lanen artean 80x40cm-ko tailla bat dago, balearen arrantza irudikatzen duena eta tailla hori Orioko Udalari eman dio dohaintzan, zurez egindako marko taillatu batekin batera. Udalak, udalbatzarraren aretoan jarri du Joxe Etxeberriaren tailla, eta, horrekin batera, XVI. mendeko bi baleazale oriotarrek Ternuan idatzitako testamentuen lehen orriaren kopiak jarri ditu. Testamentu horiek Amerikan idatzitako dokumentu zaharrenetakoak dira eta Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan jasota daude.



Ikerketa

Do re ni elkarteak boluntario bila dabil

Xabier Lizaso buru duen Do re ni elkarteak ikerketa zientifiko bat egin nahi du, gai hau aztertzeko: musikaren eragina zahartze osasungarrian eta zahartze aktiboan. Ikerketa hori egiteko, 55 urtetik gorako 200 boluntario behar ditu, Urola Kosta eskualdeko herrietakoak. Elkarrekin dagoeneko bi bilera egin ditu Orion eta jende ugari erakutsi du gaiarekiko interesa.

Orain arteko azken bilera Orioko Salatxo aretoan egin zuen irailaren 10ean eta, argazkian ikusten denez, oso jendetsua izan zen.

Orion dagoeneko jende dezente eman du izena boluntario izateko, baina orain epe bat zabaldu nahi dute, inguruko herrietakoak ere parte hartzerantz animatzeko. Boluntario gisa izena eman nahi dutenek Orioko Udalera edo kultur etxera jo behar dute, eta fitxa bat bete. Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da.

Kirola

Andoni Garatek hamairugarren egin du Getariako XVIII. Salbatore Biatloian

Pasa den larunbatean jokatu zen Getariako XVIII. Salbatore Biatloia, 12:00etan hasita, Biatloi Txikiaren ondoren. Aurten 59 partaide izan dira, eta lehenengo aldiz, erreleboka jokatzeko aukera eman dute. 19 bikotek hartu dute parte guztira, eta gainontzeko 40 pertsonak banaka lehiatu dira. 550 metro egin dituzte igerian Getariako Malkorbe hondartzan, eta ondoren, herrigunea lasterka zeharkatu dute, 3.500 metroko ibilbidea osatuz.

Andoni Garate oriotar bakarra izan zen parte hartzen eta hamahirugarren postuan amaitu zuen biatloia 20:40 denborarekin, senior mailan.

Kultura

Benito Lertxundik 'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' ipuin musikatua berrargitaratuko du

Benito Lertxundik Zuhaitzak landatzen zituen gizona ipuin musikatua berrargitaratuko du irailaren 27an, ostiralarekin. Jean Ginoren ipuina Lertxundiren ahotsean jarri eta Paul Winter Consorten musikaren laguntza izango du. Grabaketa disko formatuan izango da eskuragai. Lertxundiren kontaketa 1993an argitaratu zen lehen aldiz.



Kirola

Seigarren egin du Aizperrok Euskal Pentatloi Txapelketan

Euskal Pentatloi Txapelketaren finala jokatu zuten pasa den larunbatean, Azpeitiko zezen plazan, eta agerikoa izan zen herri kirol jaialdiak ikusmina piztu zuela: gutxitan bezala bete zen zezen plaza. Sei kirolari aritu ziren nor baino nor: Xabier Orbegozo Arria V.a erreizildarra, Joseba Otaegi zizurkildarra, Joxean Olaskoaga Aizperro oriotarra, Aratz Mugertza mutrikuarra, Xabier Zaldua zumarragarra eta Luis Txapartegi aizarnarra. Iazko txapelketa izan da aurten ere irabazlea: Zaldua. Aizperro seigarren geratu zen txapelketan.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

• Logela alokagai, etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652-55 15 50

Lan bila

• Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tf: 674-12 32 93

• Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638-73 05 44

• Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinakoen zaintza, garbiketa lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta

erreferentziakin. Tf: 661-13 32 95

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko. Lehen hezkuntza graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636-31 22 31

• Neska lan bila. Barnezaintzailea, garbiketa lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin Tf: 632-58 23 65

• Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676-44 13 27

• Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tf: 642-69 60 38

• Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean

egoteko prest, egunez eta gaeuz. Tf:688-61 04 52

• Lan bila nabil etxe garbiketarako egiteko prest. Tf: 642-69 94 48

Etxe bila

• Familialia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabiltza. Tf: 661-33 11 13

Salgai

• Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500euro. Tf: 657-77 45 11

Bestelakoak

• Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tf: 623-17 95 37

• Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tf: 666-18 41 69

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:51 eta 19:12	00:36 eta 12:54	☉
02	07:33 eta 19:57	01:19 eta 13:38	☉
03	08:17 eta 20:44	02:02 eta 14:25	☉
04	09:06 eta 21:38	02:49 eta 15:17	☉
05	10:03 eta 22:46	04:41 eta 16:19	☉
06	11:19 eta _____	04:46 eta 17:37	☉
07	00:16 eta 12:49	06:09 eta 19:06	☉
08	01:43 eta 14:05	07:32 eta 20:17	☉
09	02:44 eta 14:59	08:34 eta 21:07	☉
10	03:29 eta 15:40	09:19 eta 21:45	☉
11	04:04 eta 16:15	09:56 eta 22:18	☉
12	04:35 eta 16:47	10:30 eta 22:50	☉
13	05:05 eta 17:16	11:02 eta 23:20	☉
14	05:33 eta 17:46	11:32 eta 23:50	☉
15	06:02 eta 18:15	12:03 eta _____	☉
16	06:30 eta 18:45	0:20 eta 12:35	☉
17	07:00 eta 19:17	0:52 eta 13:08	☉
18	07:33 eta 19:54	01:25 eta 13:45	☉
19	08:11 eta 20:37	02:03 eta 14:29	☉
20	08:59 eta 21:35	02:49 eta 15:23	☉
21	10:05 eta 22:56	03:48 eta 16:35	☉
22	11:32 eta _____	05:05 eta 18:00	☉
23	00:30 eta 13:00	06:31 eta 19:20	☉
24	01:48 eta 14:11	07:45 eta 20:25	☉
25	02:48 eta 15:08	08:45 eta 21:18	☉
26	03:38 eta 15:57	09:36 eta 22:05	☉
27	04:23 eta 15:42	09:23 eta 21:49	☉
28	04:06 eta 16:26	10:07 eta 22:31	☉
29	04:47 eta 17:08	10:51 eta 23:13	☉
30	05:28 eta 17:50	11:33 eta 23:53	☉
31	06:09 eta 18:33	12:17 eta _____	☉

ZAINZAKO BOTIKAK

- URRIA:
- 1etik 4ra, Lasa.
 - 5ean eta 6an, Iriarte.
 - 7an, Lasa.
 - 8an, Gallo.
 - 9an, Redondo.
 - 10ean, Zulaika.
 - 11an, Gallo.
 - 12an eta 13an, Etxeberria.
 - 14an, Larrañaga.
 - 15ean, Redondo.
 - 16an, Lasa.
 - 17an, Iriarte.
 - 18an, Esparza.
 - 19an eta 20an, Gaminde.
 - 21ean, Etxeberria.
 - 22an, Zulaika.
 - 23an, Iriarte.
 - 24an, Iturria.
 - 25ean, Redondo.
 - 26an eta 27an, Larrañaga.
 - 28an, Etxeberria.
 - 29an, Redondo.
 - 30ean, Esparza.
 - 31an, Gaminde.

- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6. 943 50 47 83 Zarautz
- **Gallo:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68 943 12 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Iturria:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **Redondo:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

➤ Hilerrien kudeaketa
➤ Hileta zerbitzu orokorrak
➤ Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerrri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

Orio

Elkarretaratzea

- Irailaren 27an, ostiralarekin, *Xua Gurasoekin Etxera!* kantuaren aurkezpena izango da 20:00etan Herriko Plazan eta ondoren ekimenaren aldeko sinadura bilketa egingo da.
- Urriaren 3an, ostegunarekin, Zaharren Babeslekuak antolatuta, pensio duinen aldeko elkarretaratzea izango da, 18:30ean Herriko Plazan.

Bingoa

- Urriaren 2an, Zaharren Babeslekuak antolatzen duen asteazkeneroko bingo saioei hasiera emango diote, 16:30ean, Kultur Etxean.

Irteerak

- Urriaren 4tik 5era Pirineotara irteera antolatu du Talaimendi Elkarteak.

Jardunaldiak

Mandalara, Arraunetxan (gaztelaniaz):

- Irailak 27, ostirala, 19:00etan *Musika, emozioen zaintzaile*. Patxi del Campo musikologoaren eskutik.
- Irailak 28, larunbata, 11:00etan *Yoga familiar*. Jessica Moralesek gidatuta.

17:00etan *Landareen sekretua*. Gabriel Vazquez idazlearen eskutik.

- Irailak 29, igandea, 11:00etan, *Norberak ikasi norbera zaintzen*. Eneko Landaburu Doktorearen eskutik.
- 17:00etan *Musika afrikarraren tailer interaktiboa*.

Musika

- Urriaren 3an, Shanghai Qiutian taldeak kontzertua eskainiko du iluntzeko 20:00etan Etxeluze Gaztetxean.

Ikastaroak

- Urriaren 2an, Talai Mendiren Euskal Dantza ikastaroak abiatuko dituzte. Asteazkenero bilduko dira 21:00etan, Kosta Tailerlean.
- Urriaren 7an, astehelenarekin, Esperientzi Eskolak eskainiko dituen doako tailerren aurkezpena izango da.

Aia

Irteera

- Irailaren 28an, larunbarekin, Giltzaiturri kobazuloa ezagutzeko irteera gidatua. Hiru orduko bisita

izango da; 10:00etatik 13:00etara.

Hitzorduak

- Urriaren 2an, asteartearekin odola emateko hitzordua izango da Lardizabal Herri Eskolan.

Laurgaingo San Miel Jaiak

Irailak 28, larunbata

- 16:30. Ume jolasak eta txokolatada
 - 17:30. Tortilla patata lehiaketa (eguraldi txarra egiten badu haur jolasak eta tortilla lehiaketa bertan behera geldituko dira)
 - 21:00. Auzo Afari Herrikoa, Atsedean toki Elkartean, 27euroren truke. Menua: tomate entsalada, urdaiazpiko tortilla, txuleta entsaladarekin, gazta eta menbrilloa. Kafea eta kopa.
 - Afalostean. Laja eta Lutxurdio trikitilarien eskutik, erromeria goizaldera arte.
- Irailak 29, igandea
- 10:30. San Miel meza
 - Jarraian. Hamaiketakoa eta, ase ondoren, herri kirol erakustaldia.

Musika

- Urriaren 5ean, larunbarekin Errenteriako Musika Bandak kontzertua eskainiko du Aiako Plazan, 20:30ean.



Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurra-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 - behea (20810 Orio)
Telf./Fax: 943 134 717
Mugikorrek: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com



XS arkitektura

- obrak
- proiektuak
- errehabilitazioak
- txostenak
- eraikuntza zerbitzuak
- ITEak
- eraikinen mantenua

borja agiresarobe lopelegi 6 3 5 7 3 1 7 2 2
herriko-barra11, behea 9 4 3 1 3 4 3 5 8
20800 zarautz xs@sarkitektura.com

www.xsarkitektura.com



ITSASOKO URETAN YOGA KLASEAK

**Astelehenero
10:00-11:00**

Talasoterapia eta ongizate zentroan

**Probako lehen klasea doan
Hilean 68 euro**

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

VILLA ANTILLA HOTELA ETA TAHALASSOA

Hondartza bidea, 1 - 20810 Orio (hondartza aurrean)

Tel. 943-89 21 02 (Extentsioa Ongizate eta Talasoterapia zentroa)

reservastalaso@villaantilla.com



* Klase bakoitzeko prezioa 30 euro da